

Lagun ezkutua

–Aizu, Unai, laster Gabonak!

–Bai, Ainara, zer azkar pasatu den urtea! Aizu, aurten ere egingo dugu *lagun ezkutua*?

–Lagun ezkutua? Uf... Ba, egiten badugu, nik baldintzak aldatu nahi ditut, ze nik ez dut eskuz egingo! Erosi egingo dut! Badakizu, plastika beti suspenditzen nuen! Erabat txarra naiz eskulanetan!

–Kar-kar-kar! Bai, lasai, ondo ezagutzen zaitugu! laz hori zen baldintza: eskuz egin behar zen! Nori egin zenion zuk? Itsasori egin zenion? Bai, ezta? Zer izan zen? Kar-kar-kar!

–Bai, hori da: Itsasori egin nion oparia. Ba, belarritakoak zintzilikatzeko sare bat egin nion. Itsusia. Oso itsusia. Eta, gainera, lehenengo belarritakoa zintzilikatu zuenean, puskatu egin zen! Baina, aizu, ez dakizu zenbat kostatu zitzaidan!

–Egia! Kar-kar-kar! Erabat itsusia zen! Eta zuri nork egin zizun oparia?

–Niri Mikelek egin zidan. Eta, noski, lotsagarria izan zen, ze Mikel oso trebea da eskulanetan eta imajinazio handia dauka!

–Bai, hala da... Zer oparitu zizun?

–Ba, mahai-joko bat egin zidan, pentsa! Berak asmatu zituen galdera guztiak, fitxak egin zituen, taula ere berak egin zuen...

–Bai, gogoratzen naiz! Mikel oso trebea da eskulanetan, bai. Eta Elene ere bai. Elenek Xikerri egin zion oparia, ezta?

–Xikerri? Ez, Elenek Xikerri duela bi urte egin zion. laz, Xikerrek ez zuen parte hartu. laz Elenek zuri egin zizun, Unai! Ez zara gogoratzen? Galtzerdiak oparitu zizkizun!

–Ai ama, egia! A, bai! Galtzerdiak oparitu zizkidan, eta berak egin zituen, gainera!

–Bai, eta zuk Eleneri zer oparitu zenion, ba? Zuk Eleneri giltzak uzteko armairutxo bat egin zenion, Unai! Ikusten? Horrela ezin da... Zuek sekulako opariak egiten dituzue, eta nik sare txatxuak egiten ditut, puskatzen diren sare txatxuak, gainera! Aurten ez da pasatuko. Aurten, opariak erosi egingo ditugu! Eta gauza bat esango dizut: Itsaso ere ados egongo da, seguru! Bera ere nahiko txarra da eskulanetan! Ni Itsaso baino txarragoa naiz, e! Baina Itsaso ere...

–Kar-kar-kar! Bai, bai! A zer pareta! Aizu, orain ez naiz gogoratzen... Itsasok Mikeli egin zion oparia, hori seguru, baina zer oparitu zion?

–Mmm... Ba, ni ere ez naiz gogoratzen. Oraintxe idatziko diot Mikeli!